



ARMENDIGAIN KALEAKO 1 ZENBAKIDUN ERAIKINEKO 4-B LOKALAREN ALOKAIRUA

BALDINTZA PLEGUAK

1.- Xedea.

Plegu hauen xedea da, Armendigain kaleko 1 zenbakidun eraikineko 4-b lokalaren alokairua arautzea da.

Lokalaren ezaugarriak:

Azalera: 21,77 metro karratu

Komunitateko partaidetza: %4,27

Hartzailea behartuta dago, herritarrentzat-komunitatearentzat proiektzioa izango duen jarduera ekonomiko edo profesionala garatzera. Ez da onargarria izango ez almatzen erabilera ezta ere bizileku erabilera.

2.- Proposamenen aurkezpena.

Interesdunek beraien proposamena kartazal batean aurkeztu beharko dute honako dokumentazioarekin:

a) Lizitzailearen NAN edo sozietate bat izanez gero, sozietate osaketako eskrituraren kopia bat, Merkatal Errejistroan izena emanda.

b) Lizitzailearen adierazpena, non ziurtatzen duen, ez dagoela Estatutako 9/2017 Kontratu Legeak ezarritako debekuen artean.

c) Memoria: jardueraren ezaugarriak, lan esperientzia eta herriarenganako izan dezakeen zerbitzua adierazten duena.

d) Dagokion jarduera ekonomikoko epigrafean alta eman izanaren agiria.

Interesdunek, beraien proposamenak Udal bulegoetan aurkeztu ditzazkete Udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo lan egunetik hasi eta 15 egun naturaleko epean, beti ere, azken eguneko eguerdiko 2ak baino lehen.

3.- Esleipena.

Proposamenak aztertu eta ontzat eman ondoren, aurkezpen azken egunetik hasi eta gehienez hilabeteko epean, esleipena egingo du Administrazio Kontseiluak zozketa bidez.

Zozketa saio publikoan izango da eta data eta orduaren berri udalaren web orrian jarriko da, gutxienez, bi egun lehenagotik.

4.- Prezioa.

Kontratu honen prezioa 6 euro/metro karratukoa izango da, hau da, 130,62 euro/hileko (BEZ kanpo). Kontratua indarrean dagoen bitartean, prezioak ez du inolako igoerarik izango.

Kontutan izan behar da, Armendigain 1 Jabeen komunitateko gastuak esleipendunaren kontura izango direla.

5.- Iraupena.

Esleipenaren iraupen 3 urtetakoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita. Bi aldeek kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago, gutxienez, kontrakorik azaltzen ez badute idatziz, hiru urtez luzatuko da kontratua.

6.- Araudia.

Lizitazio honi ezargarri izango zaizkio indarrean dagoen araudia espreski plegu hauetan adierazi ez diren arloetan, hala nola, 9/2017 RDL, azaroak 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituenak.

Eta Arrendamendu kontratuari berriz, 29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri Arrendamenduenak.